

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernua eta Barne Ministerioa segurtasun-arloko elkarlana indartzeko bildu dira

Morrás kontseilariak eta Fernández Díez ministroak lan-bilera bat egin dute eta bertan Nafarroan aritzen diren polizia-baliabideen koordinazioa aztertu dute

Jueves, 21 de marzo de 2013

Kargua hartu zuenetik egin duen lehen bilkura instituzionalean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrás Iturmendi-k gaur arratsaldean Barne ministro Jorge Fernández Díez-i planteatu dio segurtasuna hobetzeko eta Nafarroako bideko ezbehar-kopurua murrizteko neurriak hartzeko beharra dagoela.



Kontseilaria, ministroarekin izandako elkarriketaren ondoren egindako agerraldian.

Alde horretatik, Morrás kontseilariak alor horretan bi administrazioek egin beharreko jarduketak zehazteko interesa agertu dio ministroari.

Aztertutako beste zenbait gai

Barne Ministerioko egoitzan egindako bilkuran, bi agintariek aztertu dute ere Estatuko Administrazio Orokorraren eta Foru Komunitatearen arteko elkarlana handitzearen egokitasuna Nafarroan herritarren segurtasun-arloan aritzen diren polizia-baliabideen banaketa eta koordinazioa hobetzeko: Foruzaingoa, Guardia Zibila, Polizia Nazionalea eta udaltzainak.

Gainera, Morrás kontseilariak Barne ministroari ohiko komunikazio-mekanismoak ezartzeko beharra aurkeztu dio, elkarrekiko informazio arinduko dutena segurtasun-arloan bi administrazioetako maila ezberdinen artean.

Kontseilariak eta ministroak beharrezkoak diren harremanak izaten jarraituko dutela adostu dute dagozkien akordioak gauzatze aldera.

Morrás kontseilariak Fernández Díez ministroarekin egindako lehen bilkura instituzionala izan da; arrazoi hori dela eta, hitzorduak aurkezpen-bisitaren protokolozko izaera ere izan du.